



13. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA URGENTEA, 2005eko abenduaren 23an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko abenduaren hogeita hiruan.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Aingeru Ezkerra Andueza jarduneko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Mariví Roteta Mujika a. eta

Aitor Larrañga Burguera

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ezohiko bilkura urgentea egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. PP-ko zinegotziak diren Guillermo Sánchez-Berra Quintana jaunak eta José Luis Mtez. de Espronceda Luiña jaunak bere ezin etorria justifikatu dute, ez aldiz Juan Ramón Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Iruñe Soto Cotorro andrea, kontu-hartzaile lanetan.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Udalbatzaren honen deialdia urgentea dela erabakitzea.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, deialdia urgentea dela erabaki du, Alkate andreak azaldu dituen arrazoiak justifikatuak direla uste duenez.

- José Luis Goiketxea jaunak, EAJ-PNV alderdiko zinegotzien bozeramaileak, nabarmendu nahi izan du Udalbatza urgentziaz deitzearen alde agertu zela lehen ere Bozeramaileen Batzordea.

2.- Gas Pasaiaren akzioak besterentzea.

2005eko abenduaren 21eko Eledunen Juntaren proposamena aztertuta eta baita ere “Z & B Auditores Consultores de Entidades Públicas”-ek 2005eko abenduaren 15ean egindako txostena aztertuta, hain zuzen ere, akzioen balorazioari buruzkoa eta Udalak enpresa birreskuratzeko duen eskubideari buruzkoa, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- “Naturcorp Redes, S.A.U.-k (Naturgas Energía Distribución) egindako proposamena onartzea, hots, Pasaiako Udalak “Gas Pasaia, S.A.” sozietatean dituen akzioak MILOI BAT (1.000.000) eurotan erostea.

BIGARRENA.- Alkate Andreari ahalmena ematea erabaki hori betetzeko behar diren jarduerak egin ditzan.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: proposamena onartu da, HAMABI (12) aldeko boto izan baitira, PSE-EE (5), EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdikoena, eta kontrako BI (2) EB-IU alderdiko zinegotzienak.
- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - Alkate andreak adierazi du Z & B Auditores Consultores de Entidades Públicas enpresak egindako txostenean jasotako azalpenak ontzat ematen direla.



- José Luis Goikoetxea EAJ-PNV alderdiko zinegotzi-taldearen bozeramaileak adierazi du proposamenaren alde daudela, badelako espedientean kontrako txosten bat hartutako erabakia abalatzeko duena.

3.- Etxez etxeko laguntzarako arautegia.

2005eko abenduaren 20ko Gizarte Zerbitzuaren Batzorde Informatiboaren proposamenez eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. Artikulua kontuan hartuta, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Alkate Andreari Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuri buruzko Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea. Hitzarmenaren bitartez laguntza behar duten herritarrentzako etxez-etxeko zerbitzua Pasaiako Udalaren esku uztea formalizatzen da.

BIGARRENA.- Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudiari hasierako onarpena ematea.

HIRUGARRENA.- Araudia jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunak izateko aukera ematea HOGEITAMAR EGUN NATURALEKO epe barruan, idatziz alegazioak aurkeztu ditzaten.

LAUGARRENA.- Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ezean, hasierako onarpen hori behin betikoa izango.

- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea EAJ-PNV alderdiko zinegotzi-taldearen bozeramaileak adierazi du diktamenean akats material bat badela, jartzen baitu Batzordea 2005eko abenduaren 23an izan zela, baina benetan 2005eko abenduaren 20an izan zenez, hala adierazi behar baitzen.

Eta, beste gairik ezean, 09:30etan batzarra amaiturik, nik, jarduneko idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.